

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



CARLOS BRANDT EDITOREA. CARLOS TEIXIDOR BILDUMA.

TXILEKO PILOTALEKUAK XIX. MENDEAN

Badakigu Txilen XVI. mendetik jokatzen dela euskal pilotan, eta historialari batzuek Alonso Ercilla aipatzen dute, jatorriz bermeotarra, Amerikako lurretako pilotari eta pilotaren zabaltzaile moduan. XIX. mendetik iritsi dira Txileko geografian sakabanatutako frontoi batzuen dokumentu grafikoak; Ballesteros de Santiago (1884an erai-
kia), Cañete (1886), Lebu (1993) eta Concepcioneke biak (1885 eta 1889), besteak beste. Amerikako emigrazioaz egindako ikerketetan, Txilen bizi ziren Etcheverry
anaien korrespondentzia berreskuratu du Ariane Brunetonek. 1886ko urtarrilean, bere Arnegiko (Nafarroa Beherea) familiari bidalitako gutun batean, Elie Etcheverryk
dio pilota partida batera joan zela, «...Etchegaray anaiek eta osabak, Concepcioneke bi gazteren, euskaldunak noski, eta Deyheralderen aurka jokatutakoan...». Urte be-
reko urrian halaxe kontatzen die beste gutun batean: «...Datorren igandean pilota partida handia izango da Concepcioneke frontoian: hegoaldeko hiru gazte iparralde-
ko beste hiruren aurka, ondo ulertuta, denak euskaldunak». Irudian Carlos Teixidorren bildumako postal bat ikus daiteke. Bertan, 1889an eraikitako Concepcioneke
"Plaza Euskara" frontoia agertzen da, ikuslez beteta, eta xistera jokalaria argazkilariarentzat posatzen. Kronikek bertako xistera partiden berri eman zuten.
«...Igandetik igandera, arratsaldeetan, lanetik ateratakoan, Arretchea, Ribes, Uhart, Bordachar, Harismendy, Urrizola eta beste hainbat lagun biltzen dira kirol horretaz
gozatzeko. Urruneko aberria gogorarazten die, Pirinio zaharretan galdutako jatorrizko herria, edo beren guraso eta nagusien aberria ere bai».